Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Erramun Negelua

Gamarte, Nafarroa Beherea (1935)



Aurkibidea

Biografia



Gamarten sortua 1935ean. Laboraria izan da bizi osoan eta egurra lantzea izan du zaletasunetako bat. Baina bere zaletasun nagusia kantatzea izan da. Gazterik hasi zen kantari eta urte askoan ibili da herririk herri bazterrak kantuz alaitzen. Lakarriko emazte batekin ezkondua.

Zintak

GAM-003

- **Proiektua**: Alex Artzelus Mujika
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Data**: 2015-05-06
- **Iraupena**: 44 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Artzelus, Alex
- **Emalea**: Artzelus, Alex

GAM-004

- **Proiektua**: Agustin Mendizabalen fondoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendizabal Iturria, Agustin
- **Data**: 2011-10-07
- **Iraupena**: 140 min
- **Euskarria**: Audio digitala
- **Emalea**: Mendizabal Iturria, Agustin

GAM-005

- **Proiektua**: Agustin Mendizabalen fondoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendizabal Iturria, Agustin
- **Data**: 2011-10-07
- **Iraupena**: 15 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Emalea**: Mendizabal Iturria, Agustin

Pasarteak

1. Eskola kontuak

- **Erref**: GAM-003/002
- **Iraupena**: 0:04:21. **Hasi**: 00:01:02. **Bukatu**: 00:05:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Eskolara gutxi joan zen, etxeko lanak egin behar izaten baitziren. Algeriako gerrara joan zelarik, apenas zekien frantsesik. Eskolako bidea oso pozik egiten zuten. Frantsesez zen eskola, eta euskaraz ari baziren zigortuak ziren. Kalkuluak egiten ikasi zuen, behintzat.

Transkripzioa
- Etxean...
- etxean, bai.
- Gero eskolarat, Ibarlarat?
- Eskola, Ibarlako eskolan ibilia, bai.
- Ta zer, zer orroitzapen duzu denbora haretaz, haur denboraz.
- Bo, haur denbora goxoa zen, bena ez gira eskolan anitz ibili. Etxen behar zen ari izan lanian, aitaren laguntzen. Ez zen oraiko tresnarik eta alorretan ta artzeko, behar zen behiek eta otsematia erraiten da, behar ziren eta lagundu eta aita, eta ordian, ez gindien, ez ginien eta eskolan denbora guti

pasatu dut.
-Ba
- Eta ordian nik ez dut anitz gauza ikasi.
-Eskolako gauzetarik ez, bena etxaldeko gauzetarik bai eh?
- A ba, etxaldian ez dat nehork erakutsiko laborantxan ez deusetan, nik ikasi dut anitz gauza berdin etxen, eta berdin huna izain nintzan eskolatu banintz, nihaurek erraitia itsusi da bena buru huna ukana dut gauzen ikasteko, behatuta, hola, so egin eta, ez ixkiriatu ez deusetan, behatu eta.
- Ba bena gero ez baitzen usaia hori eskolan atxikitzeko haurren eta...
- Ez, eta hurrun ginen, eskola eta herrialat hiru kilometra joan ta hiru kilometra goiti. Bon ez gindien senditzen hori, bena eskolako denbora ez dut beste batzu bezala pasatu, ez etsaminarik ez deus ere pasatu, ez dut nik e holakorik. Ene, eta, nik e ikasi dutan frantsesa gehienena ene lagunekin Algerian.
- Aja, Algerian.
-Eta ba, eta denak kontraka erraiten nintien frnatsesez, eta han lagunek erraiten zadaten “ez dik hola erran behar, ez duk hola erraiten hori”. "le"-ren partez "la" erraiten nien eta hola.
- Ba, hori gu bezala, gu bezala.
- Hola, ba.
- Eta nora joaiten zinten eskolarat.
- Ah ba, eskolarat huñez ba.
- Huñez?
- Huñez huñez, ez...
- Ez zaldian, ez astoan, ez...
- Ia, ia, ia! huñez huñez, eta libertituz jauztaka untsa kontent, bidian kontent, bidian beno kontentago ginen ba bidian, honekin, anitz aldiz eta tenorea joana ta gu hor xorika eta edo xipaka edo artzen ginden hur erreka horietan eta gero puni eskola ta, holako, badakizu, haur istorio.
- Ba, usu hola, eskolarat joaiteko partez jostakan ari.
- Bai, bai.
- Usu hori. Eta gero, punitiak eskolan ordian.
- Bai.
- Eta bon, aro huna zelaik bidia hun izain zen bena gero aro gaxtoa zelarik, eta elur eta...
- A ba, arrunt denbora txarra zelarik, ez ginden ez joaiten ez.
- Ez zinten joiaten.
- Aski gindien... estakuru ttipi bat aski gindin etxen egoiteko.
- Eta ziek kontent eskolarat joaiteko?
- Ez, etxen, etxen nahiago ba!
- Guzia frantsesez eskolan.
- Bai, bai, bai, bai.Ah ba ba, han, ah ba, han frantsesez zen ba! Ba, ba! Bai
- Eta... eta eskuaraz egiten baldin bazinuten punitiak zinten edo ez?
- Eh bo, ez ginden libro ez artzera eskuaraz. Ez ginen libro. Ah.
- Bazinuten punizioneik edo hola?
- Ba, ah ba, izaiten zen ba, ba.
- Zer konparazione, zer punizione bazinuten.
- Ba ez dakit honbeste, honenbeste eta hitz behar eta, berrehun aldiz ixkiriatu edo, ez dakit erraiteko.
- Puf! Ez zen goxo izain hori eh?
- Ez, ez! bena hola, hola zen, bena deuse... hantik atera ta gu elgarrekin eskuaraz ari ginen, ba, bistan dena, ba ez dut, deank, ez dut nik eskolan ikasia gauza haundirik, egia erran behar da, bena bon, lagunekin eta gero haatik eta horrengatik kalkuletan eta bon, ikasi dut adizionia, suztrazionia, eta divizionia ez, divizionia ez, eta multiplikazionia. Behartu baitzaat hori

gero eta ene denboran, eta kabale bat honenbeste pizutan ze preziotan saldurik eta haren kalkulatzeko, ez nezaten tronpa.

2. Elizako kontuak

- **Erref**: GAM-003/004
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:05:42. **Bukatu**: 00:08:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Goizean mezara, bazkaldu eta ondoren bezperetara joaten ziren. Bitartean pilotan aritzen ziren gazteak. Oroitzen du bere lehen konfesioa zein izan zen. Penitentziak gogorrak ziren.

Transkripzioa
- Ziek nora zinuten... halako usaia gehiago joaiteko, Gamarterat edo...
- E... Ibarlarat, Ibarlarat.
- Ibarlarat.
- Ba, bai.
- Eliza ere han zinuten ordian.
- Bai, elizarat.
- Usu joaiten zinten...
- Ah ba ba, lehenago behar zen ibili elizan eh!
- Bai eh?
- "ou là là". Bazen ainitz basasaindu.
- Bai eh?
- Ez zaut inporta erranik ere.
- Ez, ez, ez.
- Orai eskas da beharbada, benan ordian sobera zen.
- Ba.
- Behar zen, eh? ikusten duzu? Goizian meza hamar orentan, eta etxerat jin, baskaldu eta berriz, atsaldian berriz bezperetarat.
- A bai eh?
- Bai ta gogotik joaiten ginden, badakizu zerendako? Lagunak elgarrekin pilotan artzen baikinden.
- A bai?
-Hura nik maite.
- Hori bai, ez?
- Bai. Eta apez bat zuzun ordian hemen Ibarlan. Apez bat bakarra.
- Ba.
-Aski, ez?
- Ba ba. Apez bat ba.
- Gero konfesatu eta hola..
- Ah ba ba! "ou là, ou là" ez ditut denak kundatu behar araiz. Lehen konfesioa itsusia dut eh? Ez dut errain hura.
- Ez, ez, ez, benan erran nahi dut...
- Ez dut errain.
- Ez zela goxo izain konfesatze hori eta...
- Harritzeko konfesio, lehen konfesioa harritzekoa, benan ez dut kundatuko.
- Ez, ez, ez.
- Hain da itsusia.
- Ez duzu konfesatu bihar hemen e? hau ez duzu konfesionarioa.

- Ba, konfesionarioa bada hori ere, manera guzien arabera. Bena ez, eta hura beti atxikiko dut burian eta... ez da posible.
- Benan ez zela goxo izain norberain eta gauzen kondatzia hola persona arrotz bati.
- Ez, ez. Eta sustut, ene lehena.
- Ba, eta gero, untsa punitu apezak ere gero beharbada, ez?
- Ba, gertatu zaut ba hori, gertatu zat, ene auzo baten ezteietan, eta ezteiliarra, ezteia eman ta, hantxe elizain erdian belauniko puni, eztei denbora guzia, ba!
- Eta segur, egungo egunetik ikusirik izain zirela inportantzia gabeko gauzak.
- Bistan dena!
- Ordian bai bena...
- Bistan dena, bistan dena, bena apezak eta nahi gintien desohoratu bere gisan, hola.
- Eta bon, eta beste, zuk ze ezagutu izan duzu...

3. Apezak gelariari kantatutako bertsoak

- **Erref**: GAM-003/005
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:08:16. **Bukatu**: 00:10:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:
apezak gelariari kantatutako bertsoak latinez eta euskaraz.

Transkripzioa
- Meza latinez edo eskuaraz ere bai.
- Denetan, latina ta eskuara.
- Hatsarrian latina beharbada ta gero...
- Bai, hatsarrian latina, bai.
-Eta gero eskuararat noiz igan zen apepres?
- Banuke segur baño ixtorio pollita kun...
- Ba errazu.
- Egiteko, bena kantuz da hura.
- Ah, errazu kantuz.
- Nahuzu egitia?
- Ba, ba, ba, errazu.
- Eh be, hau da eta apeza hamarrak eta erditan, igande goiza, hamarrak eta erditan, behar zien meza eman.
- Bai.
- Eta ihizlaria zen izigarri.
- Ba.
- Eta ihizirat partitu zen igande goizaikilan, eta hamarrak eta erditarako jin zen halere bi eper hilik.
- Ba.
- Eta hek nahi zitien gelariari prestarazi, ta gelaria mezan zen, ta prefazioan igan zien bere burian konpreniaraziko zakola eta behar zitiela prestatu eperrak eguerdiko. Hala nola hasten den.
- Ba.
- Latinez eta eskuaraz da, eh?
- Ba, ba, ba, errazu ba!

- "Dominus vobiscum, et con spiritu tuo,
per omnia secula seculorum, amen.
habemus a dominu,
dignu me iustu me,
pere dignu me iustu me sicume salutari"
haurra Maria kokoratxeko,
ahantzi zautan oixtian hiri erraiteko,
eper kapoil pare bat badu borta gibeleko musetain barnian erratzeko,
emak otoi behar den oligoa lerdentzeko,
ermeherian nun sosa erosteko
biperum, perexilum, per Cristum dominum nostrum.
Santus, santus, santus, apeza kantuz,
betterra xixtuz,
andere serora zeiñu korda ezin harrapatuz, amen.
- Biziki ona! Holako gauzak behar tziu bildu ba!
- Latina eta...
- Eskuara.
- Eskuara.
- To! Biak! Bazitzun holako apezak, ihizlariak eta ez?
- Araiz, ba! eta nola! egunaz eta gauaz ere bai ordian hemen, guria segurik. Gauaz, egunaz, eperka ibiltzen zen, ta gauaz pulinaka.
- Bai, hori bai e, segur! Guzietarik harrapatzen e? Gauza ainitz ihiztatzen ahal baitira, eh?

4. Lehengo otoitzak

- **Erref**: GAM-003/006
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:10:57. **Bukatu**: 00:12:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Ohera joan aurretik arrosarioa errezatzen zuten.

Transkripzioa
- Eta oroitzen zirea egiten zinuzten otoitz zunbaitez edo... hoietarik guti ukan duzu zuk?
- Ah, otoitza ba, araiz, egun guziz eta hebentxetan aitamekilan behar zen gau guziz egin arratseko otoitza.
- Ados [...] llabur da erraiteko edo?
- Ez, ez ahatzia dut, ez dakit, ez, ez, egiten zen agur Maria eta horietarik eta...
- Arrosarioa beharbada?
- Ba arrosarioa, arrosarioa.
- Hori zazpiretan?
- Eh?
- Zazpiretan orai?
- Ze zazpiretan?
- Atseko zapietan?
- Ah bo, auhal eta letxe
- Ah, auhal eta.
- eta hanbesteetaradino trebe ziren adinetakoak, aitak ere bazazkien eta, nola erraiten zen? "Kyrie eleison, Cristre eison, Criste audinos" horiek

bazitien lehenagoko zerak, ba izigarriko liferentzia da, ez da gehiago holako zerik, orai hariztu...

5. Musulmanak ala kristauak?

- **Erref**: GAM-003/007
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:12:02. **Bukatu**: 00:13:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Beste erlijio eta sinesmen batzuk

Laburpena:
Algerian erlijio musulmana ezagutu zuelarik, bere buruari zein ote zen egiazko erlijioa galdetu zion. Asko jaitsi da fedea.

Transkripzioa
- Ba, aise, sobera, sobera, ta orai batere, orai batere ez da...
- Hori da gertatzen.
- Ez dakit zoin den xuxena. Ni ibili niz eta... kurritu niz anitz eta Algerian ikusi nielarik eta araben eta erlijionia, harritu nintzan eta zoin den, nihauren burian ari izan nintzan zoin da xuxena, heena ala guria.
- Ba.
- Hek otoizten zuten ikusten zutena, iduzkia.
- Ba.
- Eta guk otoitzen dugu bestek erranik, intzuten duguna, Jesus hau, Jesus huna, ordian nihauren burian niz artzen zoin da xuxena.
- Ba.
- Hala, horiek, ene buriari hori, eta kestione hori finkatzen nien, ordian, beti, beti hola pasatu da, eta orai ikusten dut halere, Eskual Herri huntan, gure denbora, gazte denboratik azkar gibelerat joan dela istorio hori.
- Ba.
- Hala.
- Beharbada sobera bortxatu delakotz.
- Ez dakit, ez dakit.
- Ba.
- Ez dakit, hola.
- Eta hola.

6. Baserriko lanak

- **Erref**: GAM-003/008
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:13:04. **Bukatu**: 00:13:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:
Etxean denetatik zeogen. Batez ere arto-xuritzean sekulako festak egiten zituzten.

Transkripzioa
- Ordian, gero etxen lanian artzen zintela erran duzu.

- Bai.
- Eta zer bazinuten etxean, ze...
- Etxean denak bagintien.
- Denak.
- Ogia, artoa, mahatsa, beterrabak, lursagarrak, baratzia, eta gero udan belarka, denak eskuz, denak eskuz, belar sartzen bizkarka, hola bizkarrian, leratxunetan. Hola zen.
- Lan pizua bena hola...
- Eh?
- Lan pizuak, ez?
- Ah ba ba ba, benan ordian guk ez gindien senditzen hura, gazte delarik ez da senditzen. Eta gero artoak eta biltzen zirelarik eta atsetan xuritzen ta jendia bildu ta ogi joitiak etxeetan ta, pesta zen hori.
- Ba, ta nola.

7. Gari-jotea

- **Erref**: GAM-003/009
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:13:55. **Bukatu**: 00:14:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
sei behi parerekin ekartzen zuten etxera gari-joteko makina. Beti makinarekin egin izan du gari-jotea.

Transkripzioa
- Ogi joiteko maxina ezautu duzu zuk?
- Ba, bo, bo, etxe... hebentxetarat jiten zen. Guk behar gintien hunat maxina haren ekartzeko bost-sei behi pare, badakizu zer den? Ta ba.
- Anitz da eh?
- Ba, anitz da ba, patar baitzen, ta animaleko maxina zen, eh? Etxe, sukalde hunen karra bezanbeste haundiko maxina zen.
- Bai eh?
- Ba. Animalik ez zien.
- Eta horren aitzinetik ezagutu izan duzu ogi jotia zuk?
- Ez.
- Beti maxinaikilan ezagutu izan duzu.
- Ah ba ba ba. Ta gero, gero jin ziren eta "moissonneuse batteuse"-ak eta... bena orai ez da nihun ere gehiago hori egiten hemen, ez da gehiago ogirik.

8. Etxabereak

- **Erref**: GAM-003/010
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:14:38. **Bukatu**: 00:15:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Ez zuten abere askorik. Etxerako nahikoa ekoizten zen

Transkripzioa
- Eta gero zer kabale bazinuten?
- Behi eta ardi ta urde.
- Anitz? nonbre haundia edo...
- Ez, ez, ez gindien ez nonbre haundirik. Hiruetan hogoita hamar bat ardi ta zazpi-zortzi behi, gero orai, geroztik eta guk egin dugu urde "elevage"-ak eta guziak egin tugu, horrekilan, emaztiaikilan eginik eta berrehun urdaitegiak, ez zen jostetan ez.
- Bena lehen etxerako doia, ez?
- Eh?
- Etxerako doia.
- Lehenago ba.Ez ginden bakantzetan joaiten ahal irabazi harekin.
- Benan goserik ere ez zinuten iragaiten.
- Ez, ez, ez, denak aseak hil tuk.
- Ah ba ba, hala hobe, hala biz, urte ainitzetan hala biz, baduzu zeit erraiteko?

9. Ardoa egiten zen etxean

- **Erref**: GAM-003/011
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:15:27. **Bukatu**: 00:17:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Ardogintza

Laburpena:
Ardo asko egiten zen lehenago. brentsa eta beste zenbait tresna erabiltzen ziren ardoa egiteko. Beste etxeetara laguntzera joaten zirelarik, sekulako mozkorrak harrapatzen zituzten

Transkripzioa
- Alkolikaikilan, alkolikatuik, eta hola, anitz ano egiten baitzen.
- Ah bai? eta nola egiten zinuten anoa?
- Anoa, eta maha... delako... mahatsa biltzen, eta gero maxina batian xehatzen eta untzi haundi batetarat eta hartan erakitarazten, eta gero, eta zaz... bospasei egunen burian, erakitzetik gelditzen zelarik, barriketan ezartzen, hori berrikitara artio egin dut eh nik hemen, diela hiru-lau urte artio, araiz, ba.
- Eta, zer erran behar nauzun... baziena maxina horrek izen berexirik? Nola deitzen zen maxina.
- Ez, ez, ez, maxina horrek... "fouloir"-a zerten gindien. Ez dakit, ez dut...
- Brentsa?
- Eh?
- Brentsa?
- Ba, brentsa, eta hura mahatsain tinkatzekoa. Brentsa zen, mahatsain jusain jauzarazteko, beste gisan. Bai, hola.
- Eta mahatsain neurtzeko, ze neurri baliatzen zinuten, pinta edo ze... ze neurri, nola erran, kiloak erraiten da janaindako eta...
- Ba.
- Eta mahatsaindako, likidoaindako bazinutena neurri berexirik.
- Ez.
- Litroaz landa, honenbeste litro edo honenbeste pinta edo...
- Honenbeste pinta ba, ordian?

- Bazinuten beste izenik, hola?
- Ez.
- Erraiteko hori, zonbat ano. Kalkulatzeko.
- Ez, eta barrika batean baziren, barrikak baziren eta berrogoita hamar botoilakoak, baziren ehunekoak, hiruehunekoak, seiehunekoak, hala, hola.
- Pintaka neurtzen zinuten, pintaka kontatzen.
- Ba, honenbeste pinta, ba. Bai, bai, seiehun pinta ta hola, bai.
- Hola, eta gero mahatsa egina zelarik, besta ordian.
- Ze egiten zelarik?
- Mahatsa, o anoa egiten zelarik, ordian...
- Ez, ez, ordian ez, ez zen, gehiago egiten zen arto xuritzetan eta ogi-joiteetan.
- Ah bai?
- Eta gero, primaderan, orai, ta mahatsak eta, mahastiak aitzurraikilan egiten ziren, eta ordian auzoetan aldizka ibiltzen ginen eta animaleko mozkorrak biltzen gintien arratsetan.

10. Xarmegarria zira

- **Erref**: GAM-003/013
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:18:29. **Bukatu**: 00:19:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:
Emazteari abesten dio.

Transkripzioa
- Bai.
- Orai bigarrena duzu ments. Bakar bat oroituko duzu.
- Eta emaztiari buruz, hortxe aitzinian baitut.
- Ez dugu ikusten bena hor da.
- Xarmegarria zira
eder eta gazte
ene bihotzak ez du
zu baizikan maite
bertze zenbait bezala
ote zira libre
zurekin ezkontziaz
dudarik ez nuke.
- Bon, plazer izain du intzutiak.

11. Festetako kontuak

- **Erref**: GAM-003/014
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:19:16. **Bukatu**: 00:21:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa

Laburpena:
Etxe guztietan aritzen ziren kantuz. Baita jaietan ere. Bere lagun baten istorio bat kontatzen du.

Transkripzioa
- Erraiten duzu lehenago kantuz artzen zintela abantxu etxalde guzietan.
- Bai.
- Bazela kanturako...
- Ah ba, lehenago anitz, lehenago anitz ari ginen kantuz, berdin etxen familian, aitaikilan ta, aitak maite zin kantatzia, eta gero herriko bestetan ta, etxe inguriak egiten baitziren, ta herri... herrian, denak uñez eta goizian parti eta atsa artino bide guzian kantu orroaz elgarrekin besarka.
- Bai?
- Gaztiak, ba, hola zen. Eta hebentxetan gero, oritzen niz ikusirik: "badakixu? Bai ta...", ikastolari eman baitakote izena Erdozaintzi-Etxat.
- Ah bai.
- Bon, horgo eta apez-gei bat zen hura eta apez izan zen eta Mañex zen izena, eskolan elgarrekin ibiliak ginen gu.
- Ba, araiz. Egun hak laratan hogoita bat urte zuzken, Mañex hak. Hain anaiak, bazen eta Donaixtirat ezkondia, Tuiurrunerat. Izigarriko mozkortzalia zen eta ixtorioa, eta zerak, besteen eskerniak egiten zitien. Hebentxetan oritzen niz, gure aita ta amain aitzinian eta arrunt asia, behereko etxean eta anitz eginak eta asea eta izigarriko eskerniugilia zen, hala, eta eskerniuka eta...
- Zer da eskerniu?
- Eskernia? Eta besteen eta besteek, besteek ze egiten zuten, hori da, nola erran behar dut.
- [...]
- Arrapostu emanez bezala, edo?
- Eh, ba, berak galde hitza eta berak errepostu.
- Ados.
- Eta erran baituzu Beñat eta izan dela zien zerian, hori Xurrutakoa da, Xurrutan da hori, Oihanarteko semia eta etxe hori erosirik hor. Ordian horgo nagusi xaharra hola mintzo zen eta noaiti galdegin eta: "Maia, Maia doaikabe, debria astapitoa hi!", eta hola, hola artzen zen eskerniu egiten.
- Zirika bezala, ez?
- Ez ditut ez hitz ederrak hor erraiteko benan...
- Gauza pollitak dira.
- Ez du inportarik, ez du inportarik.
- Horiek behar tzi bildu, beste guziak hitz dotoriak nik etzit behar eh deusetarako.
- Ez, ez, ez du, untsa da ba.
- Bon.

12. Alorreko lanak eta tresnak

- **Erref**: GAM-003/016
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:22:08. **Bukatu**: 00:24:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Sasoi baten orain baino lur gutxiago lantzen zen. Garia ereiteari aspaldi utzi zitzaion. Brabanta, area, trungua, basa-area tresnak erabiltzen ziren. Emakumeak alea ereiten ibiltzen ziren

Transkripzioa
- Eta gero, heben laborantxan eta artzen baitzinten, orai beno alor gehiago bazinuten, orai beno gari eta...
- Gutiago, gutiago.
- Gutiago?
- Bai.
- Oihan gehiago?
- ez, ez, guk e lur berriak eta egin tugu gero, etxalde ttipia zen eta haunditu dugu ta hala, "voilà".
- Eta... ogia orai ez baita ereiten gehiago, ogirik.
- Ez.
- Noiz utzi zinuten ereitia?
- Puf, ez dakit, ez du... badu bulta bat orai. Hemen ez du gehiago nehok egiten ogirik gehiago eta guk ez dugu artoa're egiten gero.
- Eta gero, konparazione, lurraren itzulikatzeko eta...
- Bravanta.
- Bravanta baliatzen zinuten.
- Bai, behi, behiekilan tiratuz hura, bi-hiru behi parez eta, hola.
- Ados, eta gero bazen beste, beste... ez baitakit nola deitzen duzien.
- Lurraren prestatzeko? ahia, ahia.
- Ahia.
- Ahia. Lurrain prestatzekoa, ba.
- Eta bazena beste tresnarik, beste...
- Eta trunkua erraiten zena, rulua, eta lurrain zapatzeko, eta gero, basa-ahia bazen lurrain harrotzeko, hola.
- Eta gero bazuzun beste bat hola hortzak hola zitina.
- Eta ba, basa-ahia.
- Ah, hori basa-ahia.
- Basa-ahia.
- Ados.
- Bai. Eta horiek guziak badira orai ere, benan traktorrak tu tiratzen orai.
- Bai.
- Bai. Horiek denak lehenago eskuz.
- Denak eskuz, denak kabaleekin eta hola.
- Gero bihiaren zera egiteko eraiki... ereiteko.
- Artoain ereiteko?
- Bai. Hor ere bazinutena maxinan bat edo hola edo?
- Ez e hatsarrian ez. Eta auzoko emaztiak biltzen zien eta hola artzen ziren, ereiten. Ordian, ordian eta hori orit dut eta eleka ari ziren, ari ziren bezala, eta ahatzerik burrustaka abian zen lekiain gañen artoa, ordian hek, dena sutzen zirelaik, holako tufa batzu baziren.
- Gero... kasu.
- Ba.
- Bon, bon, hola.
- Hola, bai.
- Horiek etxaldeko aferak.
- Bai.

13. Iruten ari nuzu

- **Erref**: GAM-003/017
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:24:13. **Bukatu**: 00:24:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:
Iruten ari nuzu kanta

Transkripzioa
- Eta gero zien etxen emazteak eta artzen ziren zera egiten, hariain egiten?
- Bai.
- Hariain egiten eta hola.
- Ez, ah, iruten.
- Iruten. Ez hemen ez dut ikusi hura. Ez. Iruten ari nuzu kilua gerrian.
- Nola, nola da?
- Iruten ari nuzu
kilua gerrian
ardura dudalarik, ardura dutalarik
nigarra begian
ardura dutalarik
nigarra begian.
- Edarra hori ere. Horiek non ikasi tuzu? Aitari ikasiak?
- Ba, lehenagoko kantiak dira horiek ba, ba, ba.

14. Algeriako gerran soldado

- **Erref**: GAM-003/018
- **Iraupena**: 0:06:13. **Hasi**: 00:24:55. **Bukatu**: 00:31:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Algeriako gerra (1954-1962)

Laburpena:
Gogorra izan zen oso. Aita ere negarrez ikusi zuen. Bonba baten eztandatik libratu zen. Klase batzuk hartu zituzten eta ondoren hasi ziren gerran basamortuan. Jateko gauza txarrak zituzten. Bonbak nonahi ziren. Behin itzuli zen etxera, Baionako ospitalean egon ondoan. Luze zen harako bidea. Egunez bero handia zuten eta gauez hotza.

Transkripzioa
- Bon gero beraz, Algeriarat partitu zinen.
- Bai.
- Zonbat urtetan?
- e be, hogoita bat urtetan.
- Ah, gazte, ene adina.
- Hogoita bat urtetan. Bai, ta hantxe bi urte egon.
- Ez zen goxo izain etxetik partitzia eh? Jakin gabe norat abian zinen.
- "Ouh là là" ez dut sekula ikusi ene aita nigarrez, ordian baizik.
- A bai?
- Bai. Ta ba, gerlak, berak hamalauko gerla egina zien...

- Bai.
- Hamalaueko gerla egina zien ene aitak, ta gero ikusten zien norat ari nintzan. Hogoita hameka mila jen... gelditu dira han e! Hogoita hameka mila gelditu dira.
- Frantziako jendeak.
- Bai. Ta ni're abantxu.
- Ba.
- Jauzi nien minan.
- Ba.
- Bonban.
- A ba? ukan zinuen?
- Ah ba, ba, ba. Nunahi baziren, finkatzen zuzten. Ta treiña jauzi egin zien, heldu nintzan etxerat eta bakantzetan ta bezpera atsian ene ondoan gizona garbitia beste batek, ta gero biharamunian, ni, ene buria berriz, hantxe.
- Ba.
- Etxerat ta izialdurak edo ez dakit ze, pixa egiten nien kafia bezala.
- Puf, ez zen goxo izain hura.
- Ah, bena horiek ez dira ahazten gero.
- ah ba, ba.
- Horiek ez dira ahazten eh? horiek gauza itsusiak dira.
- Honeste jende hiltzen ikusi eta.
- bo, bo, bo, bo, ez, ez da.
- Eta non izan zinten, leku ainitzetan Algerian edo?
- Bai, bai, bai eta lehenik eskola eginarazten dute, klasa erraiten da, eta hiru hilabete leku batian eta gero hantik eta arragaldegin baitzuzten hebentik eta rapeliak.
- Bai.
- Hekilan, hekilan egon ginen beste ez dakit zonbat denbora, arragal... soldadoka eginak, arragaldegin zuzten, gerla ari baitzen eta gizona eskas zen eta ordian galdegin zuzten berriz, eta hekilan egon ginen eta gero gu joan ginen eta arrunt saharalat, [...], arrunt, bai.
- Eta jateko eta ze ukaiten zinuten?
- A ba, jatekoa, bon, jatekoa ez zen eskas, ziminokia.
- Zernahi gauza, ez?
- Ez dakit ere zer zen. Ba ba, boatak eta boata horietarik.
- Gose anitz iragan duzie edo..
- Ez, goserik ez, ez goserik ez, ez dugu erran behar, ez dugu goserik iragan ez.
- Benan irriskia bai, ez?
- Ba. Ah ba, ba, ba, hura hura hura minuta guziz irriskia.
- Bai, eh?
- Beste behin holaxet, eta... eta lagun kotsia, holaxet, eta xantza gindielarik barne batian ginen eta, hirian eta [...], puf gure erdirat, eta grenada, badakizu zer den grenada?
- Ba.
- Eta batek, hasi zen hura, hasi zen, ta erori orduko hartu zien eta kanporat botatu, bestañez garbitu behar gindien harek hantxe. Eta ba.
- Kasu emazu.
- Ba.
- Ba, ba.
- Eskual Herriari pentsatzen da ordian.
- Bai, ez?
- Ba.
- Zonbat makur.
- Eh?

- Zonbat makur.
- Bai, ah ba, ba, ba. Anitz, anitz, anitz. Anitz. Gizon gaztiak hantxe, zozokeria hango jende batzuri, zaintzeko eta holako kakolakeria, deus ere, balio ez zien istorio bat zen eta hala, hala, ze egin behar zen?
- Bena, untsa jakin gabe norat abian zinten joain zinten, segurki.
- Bistan dena. Gerla, eta beti geroztik hunat ari da, beti ari da nunbait, gerla, eh?
- Bai, bai, bai.
- Beti ari da, beti, hunbeste jende izan da hortxet.
- Ber leku horietan e?
- Ba.
- Horiek aski makur badizie.
- Ta ba.
- Ez ziren fite iraganen e, bi urte.
- Ez, ez, ez, ez dira fite iragaiten ez. Luze da.
- Eta arteka jin zinen hunat, etxerat, edo...
- Behin, behin.
- Behin?
- Behin. Eta gero egon nintzan hemen eta Baionako ospitalian, hiru hilabete, ene eta zerain garbitzeko, eta gibelerat joan gabe, hemengo, ene herri auzoetako, behorlegitar bat eta hek hil ziren han, bai, ez ziren... eta ni hara joan gabe jakin nitien hak guziak ez zadan ez plazer egin eni, eta hilak zirela hek jakitiak.
- Ba, zer lotsa, zer beldurra, eh?
- buf, ta gero luze zen bidia. Nik eman nitien berriz gibelerat zortzi egun.
- Zortzi egun harat joaiteko.
- Bai.
- Zeren ta zal... kabale treiñetan kurriarazten ginduzten. tukutu, tukutu, tukutu, trein zaharretan ba.
- Ta gero han ze egon zinten, desertian?
- Desertian ba. Desertian, eta desertian ziren, nunahi ezartzen zuzten eta delako bonbak.
- Ah bai, eh?
- Bai, nunahi.
- Beti kasu eman behar.
- Ah ba, ba, ba.
- Lo ere ezin lasai egin.
- Ah, non, uf, ez zen irri egiteko ez.
- Eta gainerat desertian bero izain zen.
- Ba, izigarri. Egunaz izigarri bero eta gauaz hotz.
- Bai eh?
- Bai, hori bitxia,
- Bai.
- Ta gauaz, gauaz eta anitz aldiz eta guardiako, goardia badakizu zer den?
- Ba.
- Behar nien hartu eta animaleko manta bat ezarririk, azal guzier beha, ez zen lokartu behar ez.
- Kasu eman behar e.
- Eta nola!
- Bai, bai, ez zen hori goxo izain ez.
- Ez eta aspaldi dut hor, hostia.
- Denak sofritzen, elgar hiltzen.
- Ah, ia. Gauza itsusiak dira horiek.
- Bai.
- Itsusiak, itsusiak.

15. Bere casette-ko kantak

- **Erref**: GAM-003/019
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:31:08. **Bukatu**: 00:34:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:
Gerratik etorri eta ezkondu egin zen. Haurrek ere kantatzen ikasi zuten eta casette bat atera zuten. Bertako kantak kantatzen ditu. Xiberotar batek egin zituen.

Transkripzioa
- Eta gero hunat jin zinen eta ordian e deia beste bizi bat, ez? Ezkondu eta eginen zinen.
- Bai, bai. Ah bai, gero, gero eta ni berrogoita hemezortzian jin gibelerat eta hiruetan hogoian esposatu. Bai.
. Ordian hobe, ez? Emaztia ondoan ukanik.
- Iduri.
- Hobe bai, ez?
- Haurrak ukan eta haurrekin kanturako...
- Bai.
- Zaletasuna edo afizione hori ekarri dizie.
- Bai, bai, bai, ekarri dute, ba.
- Kaseta ttipi bat ere atera zinuten.
- Ah ba, eta arrakasta haundia ukan diina.
- Ah bai, haundia, izigarria, izigarriko arrakasta ukan zien.
- Kantatzen ahal duzia horko kanturen bat.
- Hor ageriko da liburia, eskiain, eh?
- Ah! Nola da, jiten denian herriko bestak, holako zeait, edo nola da?
- Kazeta hartako kantiak eta ba, ez ditut zera, biga eginen tut, bi bertsu, lehen zerainak.

Egun betia moda berri
arrimatzen gira hori
bermaturik eskuarari
hiruak gira kantari

Aita-seme et' alabak
mendian sorturik gira
maite dugu sorlekia
ta eskual herri guzia

Aita-seme et' alabak
mendian sorturik gira
maite dugu sorlekia
ta eskual herri guzia

Kantatzen dugu kantatzen
guretako, zirentako
kantatzen dugu kantatzen
gure eskualdun nortasunarentako.

- Ba, eta horiek ziek asmatiak?
- Eh?
- Ziek asmatiak?
- Ez, hori xiberotar batek egina za... egina zadan hori.
- Airia ere bai?
- Bai.
- Denak hak eginak ziren. Eta galdegin nakon, kantu bat hola, eta egin zadan, hantxe, Angelun da, bizi da gizona oraino. Kantaria zen gizona bera ere eh! Latxikana zien izena, Eskiulako.
- Ah to!
- Bai, bai, hala.

16. Bere kantari ibilbidea

- **Erref**: GAM-003/020
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:34:01. **Bukatu**: 00:34:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Xiberotarrekin kantan ari izana da. Orain gelditua dute.

Transkripzioa
- Usu ibili izana zira zu xiberotarrekilan.
- Eh?
- Usu ibili izana zirela...
- Ah ba, anitz, anitz, anitz kurritu gira, bai. Eta ez du aspaldi gelditiak girela. Ene koiñata, emazte honen anaia zendu baita. Hartan gelditu ta bon, geroztik, aldi bat egiten duten denek ere, gero adina're abantzatzen, bena beti maite bistan dena.
- ba, ba, ba.
- Bai.

17. Egurra lantzen du

- **Erref**: GAM-003/022
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:35:28. **Bukatu**: 00:36:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:
Egurra lantzen du. Makilak, uztaiak, arrasteluak eta beste hainbat gauza eginik du. Labana erabiltzen du langintza horretarako.

Transkripzioa
- Gero makil egiten ere ibili izana zira. Makil egiten, makilak...
- Zer, bena ikasten? Ez...
- Ibili izan zirela egiten.
- Ba, ah ba, ba, ba. Hori ene pazionia da, ene gustia da hori. Maite dut artzia hortan.

- Eta nori ikasi zinakon?
- Nehori.
- Zuhaurek ikasia.
- Nihaurek. Nihaun baitarik ba. Hartako erraiten dut, ez dut eskolarik benan buria badut.
- Ba, ba, ba, ageri da!
- Ba, ez dut eskolarik, ez dut balio, bena, eta sobera, eskolan ibili banintz, aise eta izigarriko eskolatia aterako nintzen.
- Kasu emazu beharbada.
- Ta zuk ganibeta baliatzen duzu makilen egiteko?
- Makila, ba, ganibeta ta tresna ttipi bat dut, ez dut tresna haundirik ez.
- Ta zer eginak batzu, guzietarik, makilez landa ere baduzu gauza anitz egina zuk.
- Eta zerak e, bon, anitz gauza, eta ukan dut jestia, harraikin murru iten eta, bai, bai, bai, eta gero zurraikin delako eta usteiak, behien usteia erraiten da eskuaraz, badakizu zer den? Usteiak.
- Bai, bai.
- Usteiak. Joariain ezartzeko usteiak, ta beste anitz gauza, arrastelu ta tallu ta...
- Arrastelu zeri deitzen dakozie?
- Eta "voilà", belar biltzeko hori.
- Arrastelua.
- Ba.
- Ados
- Arrestelia erraiten dugu guk.

18. Karegintza 1

- **Erref**: GAM-003/023
- **Iraupena**: 0:04:29. **Hasi**: 00:36:57. **Bukatu**: 00:41:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

Laburpena:
Hegoaldeko baten laguntzaz karobian karea egin zuten. kareharria orgekin ekarri eta zuloa betetzen zuten. Ostiralez sua eman behetik eta ondoko asteazken arrats arte sua mantentzen zen. Txingarrek errea zela erakusten zuten. Festa egiteko aprobetxatzen zen. Karobia harriz estaltzeari karobia giltzatzea deitzen zitzaion. Hoztar bat zen hortan aritzen zena.

Transkripzioa
- Gero gisia bestia, gisia ere...
- Bai.
- Heben egiten zena?
- Bai, gisia egin dugu guk.
- Orroitzen zira egina.
- Ba, orit niz ba hortaz.
- Bazinuten gisu-labia etxen?
- Bai. Hemen bada orai ere.
- Orai ere ba, eh?
- Ba, han da, ez da, ez da hura desiran, ez. Ez da hurrun ez hortxe. Aldi bat egin dugu, hangua eta guk, bagindien eta ,ez dakit nuntik jina zen gizon hura, Exteban zien izena, zure alderdikoa zen nunbaitekoa, eta semiakilan

eta arrolatzen gira, Mauleko aldian bizi da eta Kontxitu du izena, Perez, eta hak bultarazi gintien horren aitak eta ene aitari eta gero hemen eginik gisu labian. Anitz anitz tona egin gindien.
- Bai eh?
- Bai.
- Eta nola egiten zen, konda zazu hori.
- e be, hori eta, bada espreseko eta gisu harria, eta guhauren eta pentze batian hantxe goraxeot bazen, eta hura atera gindien eta gero orge... orgetan, behiekilan ekarri, eta zilo hori bete. Ta ziloa hola ta gero hola metan. Eta hari e ostirale batez eman suia eta petik.
- petik.
- Gau-egun ondoko asteazken atsa artio. Heldu baita, ostirailia, ibiakoitza, Igandia, astelehena, asteartia, asteazkena, sei egunez geldi-geldia erratzen. Eta noiz ikusten baitzen pindarka eta izigarriko izar pollitak ateratzen zitzazkon eta erria zela erakusten zienak, izigarriko eta su pollita ateratzen zen eta ordian, ordian erria zen.
- Pindarra zeri deitzen dakozu, suia [...]
- Ba, ba, ba. Izarrak bezala, pindarrak.
- Ados.
- Izigarri eta... Eta ordian hala.
- Gero kasu eman beharko zen ateratzeko tenorian, ez? Ez erratzeko.
- Ah ba.
- Zeren ta gisiak erratzen baitzien, ez?
- Ah ba, eta nola! Bena gisia erria zen, bena harri, harri, holako mokolak eta baitziren ezarriak, hek berdin-berdina osorik ateratzen ziren bena kasu ez zitien, ez zuten busti behar, eh? Euriak atzemaiten bazien, euri xortak ukaiten bazitin gañerat, hantzen zen eta gero zabaltzen.
- Ados.
- Bai.
- Eta harri ttipiak sartzen zinuzten edo harri handiak ere berdin.
- Ze, han?
- gisu labian ba.
- Harri haundiak.
- Haundiak?
- Hola, jasan ahalakoak.
- Ados, ados.
- Ez ttipiak ez.
- Ez, ez, ez, denetarik, alo. Ba!
- Gero petik suia emaiten.
- Bai.
- Beharko ziren horiek atxiki, ez?
- Bon, harritzeko da, zonbat, zonbat egur errerik, erratzen. Eta gau eta egun, gu loriatu ginen eta elgarrekilan eta su emaiten eta jan eta edan eta orit... oritzen niz eta hiruehun botilla ano eta aita zenak gau-egunetan edan zela, ogi ta gasna, ogi-xingar, eta beti han behar zen, segidan behar zen suia eman ta han ixtorio kundan ta oritzen niz e, hoztar bat zen eta hain...
- Zien aita. Ze etxetakoa?
- hoztarra zen eta gisu labia, zeren ta ez da aski gisia, harriain botatzia, behar zien, suiain lekia utziz, egin labe bat, ta hura murruz behar zen egin ta hura ez zakien eta ez zakiten nonahi, hola pia, eta hola gisu-labia errundan zen eta hak behar hola, holaxet zerratu, ta ordian.
- Ah harriz.
- Harriz. Lehenik hak behar zien egin, hak erran nahi du, izena du gisu-labiain giltzatzia.
- Ados.

- Gisu-labia giltzatzen zen, eta hori zakien gizona hozta-Lurokoa zen.
- Ah, Luro?
- Bai!
- Entzun dut ba, Luro etxaldia ezautzen dut.
- Lurokoa zen, bai.
- Ados.
- Eta haren alaba da orai hor etxen, etxekanderia.

19. Karegintza 2

- **Erref**: GAM-003/024
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:41:26. **Bukatu**: 00:43:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

Laburpena:
Lurpean zen karobia. Karea denetarako erabiltzen zen.

Transkripzioa
- Bai, bai, bai. ezautzen tzit ba Luro hola iraganaz, iraganik noizpait hola. Eta uste dizit hori, gisu-labia gero, gisu-labia egiteko harria ez zen beharko gisu-harria izan, beste harri klase bat beharko zien izan.
- Ah eta egiazko gisu-harria, badira hemen ba.
- Gisu-labiaren egiteko, zera, gisu-labia bera egiteko beharko zela beste harri bat, beste harri klase bat bestenez erreko zen.
- Ah bena gisu labia lurpian da, eh? Egina.
- Ah, ados.
- Lurpian da eh, kasik guzia.
- Ah bai eh?
- Ah ba, ba, ba.
- Ziek hola duzie eh?
- Ba!
- Ba guk ez.
- Ordian lurpian da, ta gero petik badu labe borta eta egiteko.
- Ados, guk ez dugu hola. Guk egina dugu harriz. Bena beste harri klase bat [...] bai.
- A ba, ez dut erraiten ahal harria zer zen. Hura ez dut erraiten ahal.
- Ados, benan lurpian baldin bazen... Bon, bon.
- Hola da.
- Eta denboran baziren biga're, baño hortxe da oraino're hor egiten ahal da hortan gisia, nik ez dut eginen behar den gisia hor, ta beste bat bazen hortxe, eta hunat pasatzeko bidian peko aldian bazen beste bat.
- Etxe huntan berian.
- Ba [...].
- Bi. Denboran, denboran. Ba.
- Ta gero gisia zendako baliatzen zen.
- Denetan eta alo... eta alor eta pentze eta guziendako izigarriko eta hunkaillu baliosa da, gisia ba.
- Eta hormen xuritzeko eta?
- Ba ta're.
- Horrendako ere ba.
- Ba, benan hemen joan direnak anitz hola joan dira eta hola lurretan ezartzeko, gu guhaurek denetan ezarri gindien anitz eta herri guzia izan

zen xeka hebentxe behi orgekin eta hola.
- Noiz utzi zinuten egitia?
- Aldi bat dugu egin, eh?
- Ah, aldi bat duzie egin.
- Aldi bat, ba.
- Aldi bat duzie egin. Bon bon.
- Hola da.

20. Amaierako hitzak zirtoka

- **Erref**: GAM-003/025
- **Iraupena**: 0:00:37. **Hasi**: 00:43:23. **Bukatu**: 00:44:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
Amaierako hitzak.

Transkripzioa
- Bon egin dugu aski.
- Ba inposilez ba!
- Inposilez ba eh? Bon bon, finitzeko zer nahi zinuke erran? Finitzeko. Bururatzeko.
- Ba ez dakit ze, ze ze esperantxa duzu, agian ez zula bildu hori galduko.
- Bai, ez? Orai denek badakite hola.
- Ni berriz jiten bazira ez nizala berriz istorio kondatzen hasiko, eta orai zure maxina biltzeko!
- Hori da, bon, untsa da ba.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-17

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com